

EUSKARA. Berrogei familiak osatzen dituzte Euskal Herriko ikastolarik txikienak

«Elkartasunaren Oinez» ospatuko da igandean Lodosan eta Sartagudan

Antolatzaileek azpimarratu dute laguntza eman duten lagunei esker gauzatuko dela jaia

NOLA IRITSI

Autobusak, Lizarratik

Foruzaingoa arduratuko da, aurten ere, trafikoaz eta ibilgailuen antolamenduaz, eta hainbat aholku eman ditu igandera-ko. Eledunek nabarmendu dute autobusentzako ibilbide alternatibo prestatu dela, Sesma saihesteko.

BERROGEITA HAMAR FORUZAIN. Berrogeita hamar kide arduratuko dira, goiz eta arratsalde, espero diren ibilgailu guztien trafikoa zuzentzeaz, eta helikopteroa ere eeskura izango dute agenteek.

AUTOBUSAK, LIZARRATIK. Aurreko urteko aurreikuspenei jarraiki, 600 autobus eta ia 20.000 ibilgailu inguru espero dira Lodosa eta Sartagudan. Autobusentzako Iruñetik Logroñora doan N-111 hartzea gomendatzen da, Lizarraraino, eta, Los Arcosko saihebidetik, Sesmaraino; hortik Lodosaraino joatea aholkatzen da.

AUTOENDAKO, A-15. Auto pilaketak ahal bezainbat alboratzeko, Iparraldetik—Gipuzkoa, Iruñerria— datozen ibilgailuei Foruzaingoa gomendatzen die A-15 autobidea hartzeko, Tafalla edo Martzillaraino; hortik, Azkoiendik, San Adrianeraino iritsi, gero Calahorrako saihebidetara hartu eta N-232 errepidera atara. Ondoren, Logroñorantzako norabidea hartuta, Villar de Arnedon eskuinera hartu eta Lodosaraino iritsi.

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Laguntza eta elkartasuna. Aurtengo Nafarroa Oinez —datozen igandean ospatuko da, Lodosa eta Sartagudan— jendearen aldetik jasoko den babesari esker arrakastatsua izatea espero dute antolatzaileek, eta hala aurkeztu zuten atzo jaia: orain arte laguntza eman eta igandea bitarte laguntza emango duten guztiei eskerrak emanez.

Berrogei familiak sostengatzen dituzte Euskal Herriko ikastola txikienak. Erriberaraino euskararen hatsa eramango duen jaia aurkeztu zenean esan zen orduan «elkartasunaren Oi-

neza» izango zela aurtengoa, eta hala gertatu da urte osoan zehar.

«Zenbaitek esaten du euskarak ez duela sostengurik» azaldu du Iñaki Lasa Oinezeko koordinatzaileak, «baina oraingoa ikusi ahal izan dugu gure hizkuntzak sostengu zabala duela, izan ere».

Laguntza behar da oraindik iganderako

Nolanahi ere, bi milatik gora lagun behar dira Erribera Garaiko bi herri hauen artean jarritako ibilbidean lan egiteko. Antolatzaileek bost area paratu dituzte denetara, eta laguntza



MIKEL SAIZ
Lodosako ikastolako hainbat haur, Oinezaren maskoten ondoan.

guztia gutxi izango dela gogoratu zuten atzo. Alegia, oraindik badutela tokia. Animatu nahi duenarentzako telefonoa: 699552096.

Helburua: Lodosan bertan eraikitzen ari den ikastola berria finantzatzea. Lehen ikasleak bertan hasi zirenetik oso baldintza kaskarrak izan dira beti

han, eta ikastetxe berriarekin behin betiko konpondu nahi dute arazoa. Eraikinaren aurrekontua 40 milioi pezetakoa da.

Aurrerantzean berrehun bat ikaslerentzako tokia izango da bertan, eta Erribera Garaiko herri guztietako ikasleak jasoko litrateke. Eraikina datorren ikasurtean zabalduta nahi dute.

ORDEZKARITZA

Nafarroako Gobernuak ez du ordezkari bidaliko

Aurten, lehendabiziko aldiz, Nafarroako Gobernuak ez du ordezkari bidaliko Nafarroa Oinezera. Hala baieztatu zuen atzo Pello Mariñelarena Nafarroako Ikastolen Elkartearen zuzendariak. Mariñelarenak azpimarratu zuen urtea *annus horribilis* izan dela euskararentzat Nafarroan,

eta administrazioen eta gizartearen artean egon den «haustura» nabarmendu zuen. «Euskaldunon eskubideak etengabe murriztu dituzte, trabak jarri unibertsitatean sartzeko, ikasliburuak inposatu dituzte eta kartelak kendu». Mariñelarenak gogoratu zuen, era berean, Iruñeko Udalak hainbat traba jarri dituela Oinezaren aldeko hainbat ekitaldi aurrera eraman ahal izateko —sanferminetako txozna Takonerako bazter batera eraman zuen udalak; artisten erakusketarako gela hutsik ez zuen utzi...— eta hala eta guztiz ere, igan-

deko jaia «arrakastatsua» izango den konbentzimendu osoa zuela esan zuen. «Nolanahi ere, Gobernuak prentsaren bitartez izango du jaiaren berri, ez baita bertan izango». Bai izango dira, ordea, eta ikastolek gonbidatuta, Europako Parlamentuko hiru ordezkari: Betham Humpreys Europako Parlamentuko hizkuntz gutxituen taldeko koordinatzailea; Johan Haggman Hizkuntz Gutxituen Europako Bulegoko kazetaria, Euromosaic izeneko txostena egin duena; eta, azkenik, Markus Warasin aipatu bulegoko idazkari nagusia.

EUSKARA

'Euskal Alfabeto Iruditan' aurkeztu dute, hiru urtetik gorako irakurleendako

Aitor Renteria | BAIONA

Gatu Berdeak, Gatzain argitaletxearen haur sailak, bi liburu aurkeztu ditu «hiru urtetik gorako haurrendako»: *Euskal Alfabeto Iruditan* eta *Puxka*. Lehen liburua, izenak nabarmenki adierazten duen gisara, «alfabeto» bat da, hitzari datzekion marrazki batez lagundurik.

Alfabeto osatzeko metodologiari doakionez, «Ipar Euskal Herriko euskara batutik abiatu gara» adierazi du Patricia Martinek. Horrela hizki bati hiru sail erantsi dizkiote, gauza bat, animalia bat eta Euskal Herria zentzu zabalean hunkitzen duen kontzeptu bat, izan dadin mitologia, ohitura... Hitzak hautatu ondoren, Lontxo Iriarte marrazkilariarengana jo eta hark ilustrazio lanak egin dizkio liburuari, «baina ez marrazki bakoitza bere aldetik», adierazi du Iriartek. «A hizkiarekin adibidez astoak abarkak jantzi ditu eta aixturek biloa moztzen diote. Hiru marrazkiak bakar batean tinkaturik agertzen dira», argitu du Iriartek.

Liburu «koloretsua»

Liburua «koloretsua» da, azal gogorak ditu, marrazkiak alaiak dira eta kalitatekoak, erakargarriak. Hizkuntzari dagokionez Ipar Euskal Herriko hitzak dira erreferentzia nagusia. Gatzainek 1.000 ale argitaratu ditu eta 70 liberan (1.700 pezeta) dira salgai.

Amaita Hennebutek Gatzain argitaletxearen kideak adierazitakoaren arabera, publizitate kanpaina zabala gauzatzeko xedea dute, engoitik abiatu dutena Iparraldeko ikastoletan eta aurki Hegoaldera eraman nahi dutena.

Liburutik orrialde zenbait berezi eta bederazka salduko dituzte karta postal gisan «opari egokia da eguberri garairako» gaineratu zuen Hennebutek aurkezpenean.

Marijane Minaberi da *Puxka* Gatzainek aurkeztu duen bigarren liburua idazlea. Ipuinean Marijanek bere txakurraren bitzita kontatzen du.